



ARANGUREN IBARREKO UDALAREN INFORMAZIO-BULETINA

BERDINTASUN ZERBITZUA

www.aranguren.es

MARTXOAK 8 EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA
8 DE MARZO DÍA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES

FEMINISMOARI ESKER...
GAUR
AUKERA DUGU
IZAN, EGON, ESAN
ETA ERABAKITZEKO

GRACIAS AL FEMINISMO...
HOY PODEMOS
SER, ESTAR,
DECIR Y DECIDIR



8M, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

INFORMAZIO GEHIAGO

- 2. OR → MARTXOAK 8 KANPAINA
- 3. OR → MBKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA
- 4. OR → M8 PROGRAMAZIOA
- 8. OR → BESTE JARDUERA ETA ZERBITZUAK
- 11. OR → AHOULKARITZA JURIDIKOKO ZERBITZUA
- 12. OR → INTERESGARRIA IZAN DAITEKE...

Subvenciona / Diruz laguntzen du:

Gobierno
de Navarra  Nafarroako
Gobernua



Instituto
Navarro
para la igualdad



Nafarroako
Berdintasunerako
Institutua



PACTOS POR LOS
CUIDADOS EN NAVARRA
ZAINKETEN ALDEKO
ITUNAK NAFARROAN

M8KO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

FEMINISMOARI ESKER... GAUR IZAN, EGON, ESAN ETA ERABAKI DEZAKEGU



Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Nafarroako Toki eta Lurralde Entitateek ezinbesteko errealitate bat gogorarazi nahi dugu: gaur egun barneratuta ditugun eta gure eguneroko bizitzaren parte diren eskubide eta askatasun asko mugimendu feministaren borrokei eta historian zehar emakumeen antolamendu kolektiboari esker lortu dira.

Diskurtso antifeministen edo erredukzionisten bidez feminismoa zalantzan jartzen edo deslegitimatzen den testuinguru sozial batean, haren eginkizun erabakigarria aldarrikatu behar da garapen sozialean, eskubideen hedapenean eta sistema demokratikoaren indartzean. Feminismoa ez da eguneroko bizitzatik kanpo geratzen, ezta ideologia iragankor batetik kanpo ere: indar historiko bat da, pertsona guztien bizitza eraldatu duena, gizon zein emakume, eta bizi garen oraina ahalbidetu duena.

Azken mendean zehar, eta ez erresistentziarik gabe, feminismoak funtsezko mugarrak bultzatu ditu, egun zalantzan jartzen ez direnak. Borroka horiei esker, emakumeek boto eskubidea eta parte-hartze politikorako eskubidea lortu zuten; berdintasunean hezteko eskubidea; lan ordaindua, norberaren dirua kudeatzeko eskubidea eta autonomia ekonomikoa; mugitzeko askatasuna; dibortzioa; eta norberaren gorputzari buruz erabakitze eskubidea, sexu eta ugalketa eskubideak barne. Era berean, feminismoa funtsezkoa izan da zainketen banaketaren balio soziala eta ekonomikoa ikusarazteko eta aldarrikatzeko, horiek gabe ezin baita bizitza sostengatu.

Aurrerapen horietako bakoitza ez zen ezerezetik heldu, ez ziren egun batetik besterako prozesuak izan. 300 urteko oinarri teorikoaren, hausnarketa kritikoaren, mobilizazioaren eta emakume belaualdien iraunkortasunaren emaitza dira. Hala ere, borroka horiek deslegitimatzen, minimizatzen edo ukatzen dituzten diskurtsoak ugaritzen ari dira gaur egun, berdintasuna lortuta dagoela esanez edo feminismoa mehatxu gisa aurkeztuz. Diskurtso horiek, historiari ezikusariena egiteaz gain, arriskuan jartzen dituzte konkistatutako

eskubideak, eta zaildu egiten dute berdintasun errealean eta eraginkorrerantz aurrera egitea.

Horren aurrean, berresten dugu feminismoa justizia sozialerako aldaketaren motorra izan dela eta izaten jarraitzen duela, eta horrek eskubideak ugaritu dituela, ez bakarrik emakumeentzat, baita jendarte osoarentzat ere. Haren balio historikoa eta egungo indarraldia aitortzea erantzukizun instituzional eta demokratikoa da.

Honengatik guztiarengatik, adierazpen hau sinatu dugun toki eta lurralde erakundeok konpromiso hauek hartzen ditugu:

- › **Sentsibilizazio eta komunikazio ekintzak bultzatzea**, feminismoaren lorpen historikoei eta horrek eguneroko bizitzan izan duen eraginari balioa emateko, diskurtso antifeministen aurrean herritar informatu eta kritikoak izan gaitzean.
- › **Tokiko politika publikoetan genero ikuspegia zeharka txertatzea**, berdintasunerako benetako aurrerapausoak bermatuz.
- › **Berdintasunean eta giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza indartzea**, desberdintasunei eta indarkeriei aurre hartzeko funtsezko tresna gisa, batez ere gazteen artean, betiere teoria eta historia feministari balioa emanez.
- › **Mugimendu feministaren eta elkartegintzaren lana aitortzea eta babestea**, kohesio sozialari, justiziarri eta demokraziari egindako ekarpen historikoa eta egungo baloratzuz.

Ekintza horiek guztiek Nafarroa bidezkoagoa, berdintasunezkoagoa eta demokratikagoa erakitzen lagunduko dute, konkistatutako eskubideen defentsarekin eta hedapenarekin konprometitua. Izan ere, gaur egun eskubideez eta askatasunez gozatzen badugu, borroka kolektiboari esker da. Feminismoak ekarri gintuen honaino. Feminismorik gabe ez dago erabateko demokraziarik.

Berari esker, GAUR IZAN, EGON, ESAN ETA ERABAKI DEZAKEGU.

M8 PROGRAMAZIOA

3-27

MARTXOA



ERAKUSKETA

“EMAKUMEA ETA EUSKAL PILOTA”

Lekua: Aranguren Ibarreko Kultur Etxea.

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

Sarrera doan.

Gernikako Euskal Herria Museok antolatutako erakusketa honek, pilotajokoan modu profesionalean aritu ziren lehenengo emakumeentzako omenaldi izan nahi du, eta zesta-punta eta erraketa modalitateetan jardun zuten emakume haiek ezagutzera eman. Emakume horietako asko, pilota-jokoetan tradizio luzea zuten euskal herritakoak, nazioarte mailan gailendu ziren.

6

MARTXOA



EMAKUMEEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Elkarretaratzea eta Adierazpen Instituzionalaren irakurketa

Lekua: Mutiloa Plazan, Mutiloan.

Ordua: 12:00.

“XARMA Txalapartak” giroa alaituko du bere musikarekin.

ANTZERKIA. Publiko gazte eta helduari zuzendua.

“El cante lo dan ellas”

Adriana Olmedo eta Nerea Bonitorekin

Lekua: Aranguren Ibarreko Kultur Etxea.

Ordua: 19:00.

Sarrera: 4 €.



“El cante lo dan ellas” bi emakume hauen ahalduntze femeninoaren aldeko bidaia musikala da, eta Karina, Rafaela Carrá, Alaska, Concha Velasco, Celia Cruz... eta historia egin zuten beste hainbat abeslari handiren erritmoan deskubrituko dituzte. Sororitateak, aktibismoaren indarrak, autoestimua, itzalean egoteari utzi eta azkenean lehen lerroan jartzeko adorea emango diete, protagonista eta lider izateko. Ikuskizun kabaretero eta ganberro samarra, umorez eta inprobisazioz betea.

M8 PROGRAMAZIOA



MARTXOA



EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Iruñeko Mugimendu Feministak deitutako manifestazioa

Lekua: Antoniuttitik Gaztelu Plazarainoko martxa.

Ordua: 13:00.



KONTZERTUA

'Ahots Bihotzak' abesbatza eta Musika Eskolako Txelo Taldea

Lekua: Aranguren Ibarreko Kultur Etxea.

Ordua: 19:00.

Sarrera doan. Kultur Etxean lor daitezkeen gonbidapenen bidez.

Musikaren bidez Emakumeen Nazioarteko Egunari babesa ematea helburu duen emanaldia da.

Errepertorioa musika tradizionalak eta garaikideak osatzen dute, eta horien artean Mikel Laboaren, Leonard Cohenen eta abarren abestiak aurkituko dira.

Casa de Cultura
el Valle de Aranguren



Kultur Etxea
Aranguren Ibarra



MARTXOA

IPUIN KANTAKETA. 4 urtetik gora.

"Mis alas y yo" *MUSAS Y FUSAS-ren eskutik*

Lekua: Aranguren Ibarreko Kultur Etxea.

Ordutegia: 17:15 euskaraz. 18:30 gazteleraz.

Sarrera doan, gonbidapena jaso ondoren.

Berdintasunari, aniztasunari, aniztasunari eta errespetuari buruzko ipuinak.

Nor naiz ni? Nor zara zu? Zerk bereizten gaitu eta zerk batzen? Begiekin ikus dezakegu?



Gobierno
de Navarra  Nafarroako
Gobernua



RED DE TEATROS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
ANTZOKI SAREA

M8 PROGRAMAZIOA

21

MARTXOA



ANTZERKIA. Euskaraz. 3 urtetik aurrera.

“AZKEN EGUZKILOREA” - PATATA TROPIKALA

Lekua: Aranguren Ibarreko Kultur Etxea.

Ordua: 18:00.

Sarrera: 4 €.

Iraupena: 70 minutu.

Kattalin baserri batean bizi zen. Herrira astero jaisteko ohitura zuen, baina egun batean konturatzen da bere lagunak desagertuak zirela. Kattalinek sekulako bidaia egingo du ikertzeko. Pertsonaia mitologikoak ezagutuko ditu eta azken Eguzkilorea aurkitu beharko du.

Euskara Zerbitzuak antolatua, Korrikaren kultur programazioaren barruan.

22

MARTXOA



ANTZERKIA

“UNA MADRE DE PELÍCULA” TONI ACOSTA-REKIN

Lekua: Aranguren Ibarreko Kultur Etxea.

Ordua: 19:00.

Sarrera: 9 €.

Iraupena: 80 minutu.

Ama aktore baten eta haren alaba gidoigilearen arteko harremanari buruzko istorio dibertigarri eta hunkigarria. Artearen bidez kontuak egiteko elkartzan dira berriro. Komedia gazi-goza honek fikzioaren eta bizitza errealearen arteko mugak zalantzan jartzen ditu.

Kultura Zerbitzuak antolatua.

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



RED DE TEATROS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
ANTZOKI SAREA

5

MAIATZA



BAKARRIZKETA. Euskaraz.

“KAITIN IN THE NIGHT” KAITIN ALLENDE

Lekua: Aranguren Ibarreko Kultur Etxea.

Ordua: 19:00.

Doako sarrera, aretoa bete arte.

Euskarazko bakarriketa dibertigarri batean, kazetari batek bere lanbideko bizipen dibertigarriak eta ama gisa izandako esperientziak kontatuko dizkigu.

Euskara Zerbitzuak antolatua, Euskararen Astearen programazioaren barruan.

Zer da feminismoa?



Irakurketa erraza

Feminismoa duela 300 urte jaio zen emakume talde batek emakume izateagatik pairatzen zuen **zapalkuntzaz** jabetu zenean.

Feminismoa teoria politikoa eta mugimendu soziala da, gizon eta emakumeen arteko eskubide berdintasuna bilatzen du.

Mugimendu soziala da gizarte aldatzeko helburuz antolatutako emakume eta pertsona askok osatzen dutelako.

Teoria politikoa da gizarte justu eta begirunetsuagoa nola izan beharko zen proposatzen duelako.

Aldi historiko guztietan eta munduko bazter guztietan botereari aurka egiteko antolatzen diren emakumeak daude.

Pertsona guztienganaino iristen den mugimendu feminista bat nahi dugu Hau lortzeko beharrezko da:

1. Feminismoak, jaio zenetik gaur egun arte, mundua nola aldatu duen ezagutzea.
2. Existitzen diren edo existitu diren feminismo motak ezagutzea.

Zapalduta egotea beste persona baten menpe zaudela esan nahi du, zure bizitzaren inguruan erabaki ezin duzunean.



BESTE JARDUERA ETA ZERBITZUAK

GURASO ESKOLA

Goizeko ludotxikia

Datak: astelehen eta ostiraletan.

Ordutegia: 11:00 - 13:00.

Lekua: Ibaialde plazako lokaletan.

Izen-ematea: Oinarrizko Gizarte Zerbitzura deituz, 948 151 382, 9:00etatik 14:00etara.

Beren umetxoarekin batera (0-3 urte) areto ego-kitu batera joan nahi duten guraso guztiertzat.

Tokia, izan ere, behar bezala moldatu da jolaserako, familiartean era autodidaktan gozatzeko.



FAMILIENTZAKO TAILERRA

Irriterapia familiartean



Data: apiriliak 18, larunbata.

Lekua: Mutiloako kiroldegiko 1. gela.

Ordutegia: 11:00 - 13:00.

Izen-ematea: 948 012 012ra deituz.

Prezioa: doako tailerra.

Irri egiten dugunean, orainean gaude, hau da, ez ditugu gogoan iragana eta etorkizuna, ezta kezka ere. Elkarrekin barre eginez, geure arteko lotura afektiboak sendotzen dira, besteengan dugun konfiantza handitzen da, zuzeneko

komunikazio garbia da. Irri egiten duzunean, gozaten duzu eta bizitzak eskaintzen dituen gauza txikiak estimatzen dituzu, eta ohartzen zara zoriona zuregandik hurbil dagoela, huraxe estimatzen baldin badakizu.



GAZTEENDAKO AHOLKULARITZA

Gazteendako aholkularitza psikologikoko zerbitzua doan

Informazioa: presentzialki Gaztegunean - 689 80 87 32 / 948 23 75 58 - espaciojuven31192@aranguren.es.

Prezioa: doan.

Aurrera doa Aranguren Ibarrean erroldaturik dauden 14 urtetik 35era bitarteko gazteei doako aholkularitza psikologikoa emateko zerbitzua. Helburua gazteen bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzea da, osasun mentalean esku hartuz eta prebenituz, batez ere banakako, taldekako edo bikoteko kontsulten bidez, eta hezkuntza-tal-

dearekin lankidetzan Ibarreko gazteentzat interesgarriak diren gai espezifikoetarako buruzko tailerrak eta dinamikak emanez.



BESTE JARDUERA ETA ZERBITZUAK

TAILERRA

Ordenagailuaren eta mugikorraren oinarrizko funtzionamendua



Datak: otsailak 25, martxoak 4 eta 11, asteazkenetan.

Ordutegia: 11:00 - 13:00.

Lekua: Jubilatuen Elkarteko jardueren gela, Mutiloa plaza, 5 - 1.

Izen-ematea: 948 012 012ra deituz.

Prezioa: doako tailerra.


Emaila: Cocokids.

Doako Tailerra 60 urtetik gorako pertsonentzako (lehenetasunez).

Tailer honen helburua adinekoei teknologia hurbiltzea da, hainbat tresna, hala nola ordenagai-

lua eta mugikorra, erabiltzean autonomoagoak izateko behar diren baliabideak eskainiz.

Tailerra ikasleen ezagutza-beharretara eta erritmora egokituko da eta praktikoa izango da.



ONGIZATEA

Ongizate emozionaleko tailerra

Datak: martxoak 9 eta 23 eta apirilak 13 eta 27, astelehenetan.

Lekua: Irulegi Ikastetxe Publikoa.

Ordutegia: 18:00 - 20:00.

Izen-ematea: 948 012 012ra deituz.

Prezioa: doako tailerra.

Tailer hau gazte eta helduei zuzenduta dago eta doakoa da. ONGIZATE EMOZIONALERAKO bidea ezagutu, horretarako:

- Zure emozioak modu osasuntsu eta konstruktiboan erabiltzen ikastea.
- Pentsamolde positiboagoa eta orekatuagoa lantzea.
- Komunikazio-trebetasunak garatzea.
- Zauri emozionalak identifikatu eta askatu.
- Eguneroko bizitzan antsietatea eta estresa eraginkortasunez kudeatzeko estrategiak eta teknikak ezagutzea.

Nork bere burua emozionalki zaintzeko tresna praktikoa ezagutzera gonbidatzen zaitugu. Horri esker, eztabaidak, frustrazioak eta ondoeza saihestuko dituzu, eta, hala, zure denbora hobeto baliatu eta pertsona osoagoa sentituko zara.



BESTE JARDUERA ETA ZERBITZUAK

FAMILIA

Familien atsedenerako zerbitzu berria

Izen-ematea: jarri harremanetan Aranguren Ibarreko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuarekin. Telefonoa: 948 151 382.

Aranguren Ibarreko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzutik, familia atsedenerako zerbitzua berria martxan jartzeari buruzko hasierako informazioa helarazten dizuegu. Hasierako informazio honen bidez, herritarrek zerbitzu horren inguruan duten eskaera eta interesa jaso nahi dugu.

Familientzako atsedenerako zerbitzuaren helburua mendekotasuna duten pertsonen arreta ez-iraunkorra ematea litzateke, zaintzaileek atsedenerako hartzeko, aisialdirako eta denbora libreko uneak izan ditzaten.

Norentzat: Mendetasun edo ezintasun mailaren balorazioa duten pertsonak izanen dira zerbitzuaren onuradunak, haiek artatzeko baliabideak izan arren zaintzaile nagusiak gainkarga badu.



TAILERRA

Neure burua zaindu hobeto zaintzeko

Datak: apirilak 16, 23 eta 30 eta maiatzak 30, ostegunetan.

Ordutegia: 11:30 - 13:00.

Lekua: Aranguren Ibarreko Osasun Zentroko jarduera anitzeko gela (Iruñea Etorbidea, 11. aurrealdea, jubilotekaren sarreraren ondoan).

Emilea: Aranguren Ibarreko Osasun Etxeko profesionalak.

Norentzat: egoeran dauden beste pertsona batzuk zaintzen dituzten pertsonen zuzendua.

Izen-ematea: osasun-zentroko harreraren, osasun-zentroko edozein profesionalen bidez.

Tailerrean zehar norberaren burua zaintzeko eta mendekotasuna duen pertsona zaintzeko dauden esperientziak, emozioak eta baliabideak landuko dira.



EMAKUME ETA FAMILIENTZAKO AHOHKULARITZA JURIDIKOKO ZERBITZUA



Emakumeentzako eta familientzako aholkularitza juridikoko zerbitzua Aranguren Ibarreko Udalaren zerbitzu propioa da, eta dohainik ematen ditu familia-gaiei buruzko informazioa eta aholkularitza (banantzeak, dibortzioak, izatezko bikoteak, ezkontzaren araubide ekonomikoak), lan-gaiei buruzkoak (amatasun- eta aitatasun-baimenak, edoskitze-baimenak, zaintzagariko eszedentziak eta baimenak, kaleratzeak), gizarte-segurantzaren prestazioak (alarguntza-prestazioak, zurtasuna), testamentu-xedapenak, **emakumeen aurkako indarkeriari** buruzko gaiak (salaketak, urrutze-aginduak...).



HARRERA EMATEKO ORDUTEGIA:

Astelehenero, 10:00etatik 13:00etara, Aranguren Ibarreko Udaletzeko bigarren solairuan (Mutiloa plaza z/g). Informazio gehiagorako eta/edo hitzordua erreserbatzeko: Oinarrizko Gizarte Zerbitzua. Telefonoa: 948 15 13 82.

EMAKUMEAREN AURKAKO BIOLENTZIAREN AURREKO BALIABIDEAK



GENERO INDARKERIA EGOEREI ERANTZUTEKO ZERBITZUAK

INFORMAZIOA 📞 016 - 24 Ordu egunean (ez du uzten arrastorik fakturan)

LARRIALDIAK 📞 112

GIZARTE ZERBITZUAK 📞 948 15 13 82 / As-Or 9:00-14:00

UDALTZAINGOAK 📞 609 42 90 74 / As-Ig 7:00-22:30

OSASUN ETXEA (Gizarte Langilea) 📞 948 24 91 05 / As-Or 8:00-15:00

BERDINTASUN ZERBITZUA 📞 948 15 13 82 / As-Or 9:00-14:00

EMAKUME ETA FAMILIARENTZAKO ZERBITZU JURIDIKOA 📞 948 15 13 82 / As-Or 8:30-14:30

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEI ARRETA INTEGRALA EMATEKO TALDEA (BAIT)
📞 848 46 38 60 - 621 145 751 / As-Os 8:00 -19:00, Or 8:00 - 17:00

SEXU-INDARKERIEN ARRETA INTEGRALEKO ZENTROA (SIAIZ) 📞 848 46 39 99 eta telematikoa
(caivs@fundaciongizain.es) 24 orduko arreta 365 egun-egun barrra-urte

DELITUEN BIKTIMENTZAKO LAGUNTZA 📞 848 42 33 76 - 848 42 13 87 - 848 42 76 71



INTERESGARRIA IZAN DAITEKE...

01

Irakurketa errazeko argitalpenak. Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritza, berdintasun Ministerioa

<https://www.igualdad.gob.es/servicios/publicaciones/publicaciones-lectura-facil/>

02

NABI Dokumentazio Zentroko argitalpenak

<https://www.igualdadnavarra.es/eu/argitalpenak-2>

03

Berdintasun Ministerioko Dokumentazio zentroa

<https://www.inmujeres.gob.es/CentroDoc/Home.htm>

04

¿IPES Fundazio ezagutzen duzu? ¿Bere liburutegia?

<https://fundacionipes.org>

05

Enpresetako berdintasun-planak egiteko AHOLKULARITZA ZERBITZUA (NABI – Nafarroako Gobernu)

<https://www.igualdadnavarra.es/eu/enpresa-eta-erakundeak>



Berdintasun Arloko buletina posta elektronikoz jaso nahi baduzu, eskatu helbide honetan: igualdad@aranguren.es

Udalaren webgunean ere lortu daiteke:

www.aranguren.es/eu/zerbitzuak/berdintasuna/

BERDINTASUN ZERBITZUA - Aranguren Ibarreko Udala

Mutiloa Plaza, z/g 2. solairua - Mutiloa

Astelehenetik ostiralera - 9:00-14:00 | Tel. 948 15 13 82 | igualdad@aranguren.es